

CANVAS EREDUA

Balorezko Proposamena:

Aplikazio bat sortzeko ideia izan dugu. Honen bidez, idazleek haien liburu berriak iragarri ahal izango dituzte eta ez dute izango haien idazleak ez jakitearen arazoa. Aplikazioaren bidez, irakurleak online edo fisikoki geratu ahal izango dira liburuetaz edo gai literarioaz hitz egiteko. Aplikazio hau sortzeko beharra ikusi dugu, azken finean idazle txiki eta ez hain ezagunen erakusleho bezala erabiltzeko aukera ikusten dugulako. Horrela, idazle txiki nahiz handien eta irakurleen beharrak errazten ditugu, bai batzuen lanen ezagutarazpenarekin bai beste batzuen irakurketen bilaketarekin.

Gure aplikazioaren bidez lanak iragartzeaz eta aurkezteaz gain irakurleak liburuetaz hitz egin ahalko dute eta haien iritsiak partekatu. Hori ez ezik, idazleek haien liburuak edo audioliburuak saldu ahal izango dituzte gure aplikazioan sortuko duten profilean. Bertan euren burua aurkeztu ahalko dute, zer generotan zentratzen diren... Haien profilean denda online bat moduko txokoa egongo da, liburuak erosteko aukera emango duena.

Gainera, idazle nahi izan direnek haien liburu ezezagunak argitaratu ahal dute eta modu honetan jendearen ikuspuntua jakin ahal dute haien liburuei buruz. Hau idazleen aukerak idazle profesionalak izateko asko handituko dute eta animatuko die gure aplikazioa erabiltzeko.

- Proiektu berritzailea izango da guztiz berria den aplikazio bat sortuko dugulako.
- Prestazio nabarmenak irakurleak eta idazleak harremanetan jartzea eta haien hurbiltasuna sustatzea izango dira.
- Eskuragarritasunaren aldetik, nahiko erraza izango da gure aplikazio berri hau deskargatzea, dohainik izango delako eta Interneten bidez lortuko dugulako.
- Gustiz pertsonalizatua izango da, bakoitzak bere profila sortu ahal izango baituelako eta horren bidez bere gustuko generoak, liburuak, idazleak... filtratu eta bilatu. Modu berean, idazle bakoitzak bere profila sortuko du eta bere ezaugarriak azalduko ditu.
- Idazleentzat lana asko erraztuko dugu, haien irakurleen iritziak ezagutuko dituzte eta haien liburuak ezagutzera emango dituzte askoz errazago.